



# 2015 URTEKO TXOSTENA

AUSARTU ZAITEZ EKITEN!



**gaztenpresa**  
fundazioa

# LAGUNTZAILEAK

## SORTZAILEA

---



## KOFINANTZIATZAILEAK

---



## LAGUNTZAILEAK

---



[www.gaztenpresa.org](http://www.gaztenpresa.org)  
[info@gaztenpresa.org](mailto:info@gaztenpresa.org)

**“Zoriontsu naiz hotel honetan; ahaleginak eginda, ametsak errealitate bihurtzen dira”**

Koro Ruiz  
**OKAKO, Hotela**

Ainhoa Zaitegi  
**LABORAL kutxa  
GIPUZKOA**



**gaztenpresa**  
fundazioa



**“Betidanik  
desiratu dudan  
zereginen lan  
egiten dut”**

(Enpresen sorrera)

Javier Ojeda

**SINGULAR**  
Ideien erreprodukzioa  
**BIZKAIA**

---

# AURKIBIDEA

---

## 1. PRESIDENTEAREN GUTUNA

## 2. GAZTENPRESA

## 3. JARDUNBIDEAK

- ENPRESEN SORRERA
- ENPRESEN FINKAPENA
- MENTORING PROGRAMA
- KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEA

## 4. KOMUNIKAZIOA ETA SARE SOZIALAK

## 5. GURE PARTE-HARTZEA DUTEN SAREAK

## 6. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA BALANTZEA



# CARTA DEL PRESIDENTE

## XABIER EGIBAR

Ekonomiaren alorreko aditu zuhurrenek ere aurreikusten zuten bezala, munduko ekonomiak susperraldi iraunkorra izan du 2015ean. Lehenengo seihilekoan ahulezia handia erakutsi badu ere, hazkunde-erritmo apalarekin, horren ostean espero da munduko hazkundera % 3,1era iristea.

2016an, aurreikuspen guztiek adierazten dute datuak hobera egingo duela, nahiz eta hazkundera aldatu egingo den ingurunearen arabera: **ekonomia aurreratueta**n, petrolioaren prezio baxua, finantziario-baldintza onak eta lan-merkatuen hobekuntza direla medio, hazkunde iraunkorra espero da. **Ekonomia emergenteek**, berriz, lehengaien prezio txikiak, Estatu Batuetako tasen igoera eta beren desoreka estrukturalak pairatu ditzakete. Brasil eta Errusia atzeraldiaren mehatxuarekin daude, eta Txinak desazelerazio gradualeko sintomak erakusten ditu.

**Gure ingurunean**, susperraldi ekonomikoak aurrera egingen jarraitzen du. 2015ari dagokionez, espero da Euro Zona % 1,5eko igoerarekin amaitzea, eta Espainiar

Estaduko BPGa %3,2 haztea. 2016rako, berriz, aurreikuspen itzaropentsuak ditugu: %2,6ko hazkundera espero da EAEn eta % 3koa Nafarroan. Datu positiboak dira, ñabardura batzuekin: ez da espero langabezia-tasa % 13,5etik jaitea Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban, ezta % 10,5etik ere Nafarroan. Tasa negatiboak dira, Estatu osoarentzat aurreikusten den % 20ko tasatik urrun egon arren.

Eta zer esan dezakegu banku-sektoreari buruz, funtsezko sektorea izanik? Ikus daiteke hipoteka- eta merkataritza-formalizazioa berriak hazi egin direla, eta kontsumorako kredituaren eskaria dela dinamikoena. Edonola ere, eta oso zifra apaletatik abiatzen garela kontuan hartuta, kontratazio horiek sistemaren kredituzorroen amortizazioak baino txikiagoak izaten jarraitzen dute. Agian albiste positiboena da zalantzazko aktiboaren ratioa murriztu egin dela, zeren urrian % 10,61 izan baitzen, alegia, 2014ko amaierako zifra baino bi puntu gutxiago.

Testuinguru horretan, guretzat pozgarria da esatea 2015 urtea ekintzaitzaren

bultzada finkatzeko urte bat izan dela Gaztenpresarentzat.

### **Ideia bideragarri bat bera ere ez dadila horretan geratu, hots, ideia hutsa izaten.**

Horixe da Gaztenpresaren helburua. Laguntza integrala eskaintzea pertsona ekintzaileari, lan-merkatuan bideratu litekeen ideia hori ez dadin bidean geratu finantziario, sostengu edo aholkularitza faltagatik. Helburua handinahia da, jakina, baina datuek frogatzen dute adierazitako asmoen bideragarritasuna.

2014an, enpresa berriei eskaintzen diegun laguntza-programak 1.917 eskari jaso zituen, hau da, kopuru mardula, eta 2015ean kopuru hori gainditu eta 1.930 izan genituen. Heldutasun maila desberdina zuten negozio-ideia horietatik, 402 enpresa txiki eta 731 lanpostu berri sortu ziren. Zaila ematen zuen, baina zifrak nahiko gertu egon dira 2014eko zifretatik, hau da, Gaztenpresaren hiru hamarkadako historiaren zifra onenetatik: 462 enpresa eta 771 lanpostu. Fundazioaren borondatea erakusten duen marka paregabea.

Orokorrean, negozio horiek enpresa-ekimen txikiak izaten dira, eta batez beste 55.000 euro baino apur bat gehiago inbertitzea eskatzen dute.

Ez dira zifrak soilik: badakigu, ondo jakin ere, ekimen horietako bakoitzaren atzean badela ekintzaile bat, bere ezagutza eta gogo osoa jartzen dituen jarduera ekonomiko berri bat abiatzeko, eta, hortaz, bere lanpostua eta bizitza-proiektua segurtatzeko.

### **Giza faktorea, gure ahalegin osoaren gakoak**

Humanity at work. Horixe dio LABORAL kutxa barne hartzen duen MODRAGON Korporazioaren lemak. Eta horretan sinesten dugu Gaztenpresan: bistatik ez galtzea zein diren negozioaren arrakastaren gakoak, alegia, negozioa gauzatzen duen pertsonaren zentzu ona, lana, ardura eta talentua. Horregatik, 2015ean mugarririk garrantzitsu bat jarri genuen gure ibilbidean eta "mentoring" programa bat abiatu genuen.

Zertan datza? Enpresa- eta lanbide-erperientzia duten pertsonak beren borondatez egoten dira pertsona gazteen ondoan, beren abentura ekintzailearen lehenengo urtean. Programak bere eraginkortasuna erakutsi du: lehenengo urtean, pertsona ekintzaile bana eta eskarmentu handiko mentore bana biltzen dituzten 29 talde abiatu ditugu. Zalantzarik gabe, boluntariorik eta belaunaldien arteko laguntzan oinarritutako lankidetzara mota hori hedatzea eta finkatzea izango da datozen urteetako lehentasunetako bat.

### **Sareko lana, orain eta beti**

Mentoring programaren talde horiek Youth Business International sarearen esperientzia luzetik datorren metodologia batez lan egin dute. Sare hori irabazi-asmorik gabeko sare global bat da, gazteen autoenplegurazuzendua. 5 kontinenteetako 45 herrialdetan funtzionatzen du, eta munduko erreferentzia garrantzitsua da ekintzailetzaren alorrean.

Horregatik, pozik gaude 2014az geroztik erakunde horrekin kolaboratzen dugulako, tokiko bazkide gisa, eta Youth Business Spain-ekin, bazkide sortzaile gisa.

Kolaboratzea, kooperatzea, laguntzea. Sareko lana eta aliantzen bilaketa gure bokazioa izan dira beti, eta geure DNAren ezinbesteko osagai dira. Izatez, Gaztenpresaren abiapuntua LABORAL kutxako egituraren eta pertsonen sostengua da, alde batetik, eta mikroenpresetan espezializatutako Bultz-Lan aholkularitza-etxearekin dugun funtsezko aliantza estrategikoa, bestetik. Horiekin batera, gainera, Euskadiko Garapen Agentzia ugari aritzen dira, horiekin kolaboratu baitugu hasieratik beretik, hau da, 90eko krisi ekonomikoak bultzatu gintuenetik autoenpleguaren aldeko proiektu hau abian jartzera.

Gaur hiru hamarkada betetzen baditugu, eta sasoi horretan 4.100 enpresa baino gehiago eta 7.300 lanpostu baino gehiago lagundu baditugu, kooperatiben arteko ahaleginari esker izan da, hain zuzen ere. Eta ahalegin berdina bilatu, zabaldu eta indartuko dugu 2016ean, gure ekintzaileek bidelagunak izan ditzaten. Azken batean, haiek dira protagonistak, haien historiarenak ez ezik geure historiarenak ere bai.

### **Mugarri bat gure nazioarteko aliantzen finkapenean**

Hori izan da 2015eko gertaera nagusia. Alde batetik, Europako Mikrofinantzen Sareari atxiki gatzaizkio; bestetik, urrian, LABORAL kutxak EBko Inbertsio Funtzaren mikrokredituentzako EaSi bermeen programa sinatu zuen.

75 milioi euroekin, Europan orain arte emandako mikrokreditu-lerrorik handiena da, eta bere helburua da pertsona ekintzaile eta autonomoen etorkizuna bultzatzea, eta baita "start up" eta enpresa txikiak ere, finantziazio-baldintza bereziak eskainiz.

Nazioarteko atalean ere ez da aitortzarik falta izan. Europako I. Mikrofinantza Egunean, LABORAL kutxako Presidentea gonbidatu zuten Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen egoitzara, Bruselan. Hasiera emateko zeremonian egin zuen, Europako programa garrantzitsuenaren sinatzaile gisa, Europako Inbertsio Funtzaren EaSi akordioen barnean.

Ez da urteko aitortza bakarra izan. Hala, bereziki pozten gara AMPEA-Emakume Enpresaburu eta Profesionalen Elkarteak Gaztenpresako gerente Inma Ramosi emandako sariagatik, Arabako 2015eko Emakumezko Zuzendari onena izendatu baitzuen.

Biziki harrotzen gaitu oso balio handia duelako gai garrantzitsu batentzat: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lanaren eremuan.

Ohore horiek behar den bezala hartzen ditugu, hau da, bokazio sozial garbia duen eta giza garapenera zuzentzen den proiektu bat kudeatzen dugula jakiteak ematen digun ardurarekin.

### **Internet, sareak sortzeko laguntza gisa**

Lehen esan dugu: sareko lana funtsezkoa da gure zeregin osoan. Besteak beste, Sarean lan asko egitean islatzen da hori.



Gaztenpresan, negozio bati laguntzen diogunean, gure online presentzia eskaintzen diogu eta sare sozialak erabiltzera bultzatzen dugu, beste mikroenpresa batzuekin harremanak izateko eta elkarren artean balioa sortzen laguntzeko.

Gainera, datozen urteetako helburu bat izango da zerbitzu presentzialak online aholkularitza zerbitzu bihurtzea, gero eta neurri handiagoan.

Negozio eta garapen aukerak dauden tokian egotearen aldeko jarrera hori are agerikoagoa da gure webgunean. Izan ere, 2015 urte osoan hobetzen eta zabaltzen jarraitu du, enpresei eta profesionaleri zerbitzu gehiago eta hobea emateko.





## “Geure proiektua da”

(Enpresen sorrera)

Joseba Ubiria y Aratz Mayo

**UBATZ**

Taller mekanikoa

**GIPUZKOA**

---

# GAZTENPRESA

---

Gaztenpresa LABORAL kutxaren ekimen bat da, bere Gizarte Ekintzaren alorrekoa, **helburutzat duena enpleguaren sorrera eta iraupena sustatzea.**

Bere xedea da pertsona ekintzaileen, erakundeen eta –oro har- gizarte osoaren **enpresa-garapenari** eta eta garapen profesionalari balioa eranstean dieten ekimenak sostengatzea eta programak zein zerbitzuak garatzea.

## FUNDAZIOA HAUENGANA ZUZENTZEN DA:

- Pertsona ekintzaileak, haien adina zeinahi delarik ere.
- Laneratzeko eta gizarterako zailtasunak dituzten kolektiboak.
- Garapen-proiektuak dituzten mikroenpresa gazteak.
- Sen ekintzailea beren erabiltzaileen artean sustatu nahi duten erakundeak.

## NORTZUK GARA:

- PATRONATUA ETA BOLUNTARIOAK: LABORAL kutxako pertsonak, modu altruistan laguntzen dutenak beren esperientziarekin, pertsona ekintzaileen enpresa-garapenarekin eta garapen profesionalarekin kolaboratuz eta horren aldeko sostengua emanez.
- KOLABORATZEA, KOOPERATZEA ETA LAGUNTZEA.

## PERTSONAK:

Gaztenpresarentzat, pertsona ekintzaileak dira garrantzitsuena, hau da, nork bere arrazoiengatik urrats hori egitea erabaki zuten pertsonak, haietako asko beren bizitzak eta beren familienak hobetzeko nahiak bultzatuta; historia txikiak, gogoia betetzen digutenak eta geure motibazioa indartzen dutenak, aurrera jarriatzeko eta hobetzeko. Txosten honetan, historia erreal horietako batzuk islatzen dira. **“Errealitate bihurtzen diren itxaropenak”.**





**“Zerbait propioa  
sortzeko eta  
bezeroak  
asetzeko gogo  
bizia”**

(Enpresen sorrera)

Loli Caballero

**LOREKI**

Frutazko gutziak  
txokolatearekin

**NAVARRA**

# TALDEA

## PATRONATUA

X. Egibar, J. Emaldi, I. Urgoiti,  
I. Martinez, J. Cortajarena, C. Osés,  
P.Ugalde, J. Usatorre, T. Pérez

## KOORDINAZIO OROKORRA

X. Egibar, J. Emaldi, Inma Ramos

### KOORDINAZIO TALDEA DNA + GAZTE

Borja Garate  
Ander Toña  
Eñaut Erdoiza  
Gorka Zaldunbide

### KOORDINAZIO TALDEA SAREA + PRO + GAZTE

GIPUZKOA  
JM Osteriz  
I. Zamorano - K. Alzaga  
I. Juanbeltz - I.Otaegi  
A. Azurmendi - M. Loyola  
J. Larrañaga - N. Lopetegi

NAVARRA:  
Lucio Tirapu

BIZKAIA  
J. Urrutia  
I. Etxabarrieta  
P. Crespo  
A. Gomez  
A. Berlanga  
P.M. Durán  
E. Beasain

ALAVA  
B. Larrauri  
J.C Diaz  
J. Perez Muñoz (PRO)

### ARRISKUA DUTEN OPERAZIOEN BATZORDEA LERRU BEREZIA

Iñigo Martinez  
Josetxu Urrutia  
Juan M. Osteriz  
Borja Garate  
Inma Ramos

### MENTORING

YBS  
Patrono: Ricardo Agirre

40 mentore  
boluntario

Mentoring Manager  
Ana Artetxe





**“Ekiteak askatasuna eta gogobetetasun handia ematen dizkizu”**

(Enpresen sorrera)

Enma Francés

**MANUELA VA DE FIESTA**

Emaztegaietzako eta jaietarako moda

**GIPUZKOA**

# IMPAKTUA

PROGRAMAREN IKUSPEGI HISTORIKOA


---

# 4.100

ENPRESA BAINO GEHIAGO SORTUTA

# 7.300

LANPOSTU BAINO GEHIAGO SORTUTA



**gaztenpresa**  
fundazioa

---

# AITORTZAK

---

## **CORRESPONSABLES FUNDAZIOA:**

Laboral kutxa saritu zuen 2010ean, "Enpresa Handia" kategorian, "Gestiona-t en Gaztenpresa" proiektuagatik

## **SAN PRUDENCIO FUNDAZIOA:**

Finalistak Enpresa-jardunbide egokientzako sarietan.

## **EUSKALIT - CLUB 400:**

Finalistak berrikuntzaren alorreko Jardunbide egokientzako sarietan.

## **GIORDANO DE'LL AMORE MICROFINANCE GOOD PRACTICES EUROPE AWARD 2014:**

Aipamen berezia mikrokredituak kudeatzeko jardunbide egokientzat.

## **2015EKO EMAKUMEZKO ZUZENDARIARENTZAKO SARIA:**

AMPEAk emanda (Arabako emakume enpresaburu, profesional eta zuzendarien elkarte),






**Ampea Sariak**  
Arabako emakume enpresaburu,  
profesional eta zuzendarien lanaria



**Premios Ampea**  
a la mujer empresaria, profesional  
y directiva de Álava



**gaztenpresa**  
fundazioa



**“Ez da erraza izan,  
baina merezi  
izan du”**

---

**(enpresen sorrera)**

Fernando De Soignie y  
Javier Castaños

**AUTOCINE GETXO**

**BIZKAIA**



**gaztenpresa**  
fundazioa



---

# JARDUNBIDEAK

---

1. Enpresen sorrera
2. Enpresen finkapena
3. Mentoring programa
4. Ekintzailletza sustatzea



---

# ENPRESEN SORRERA

---

Gaztenpresaren helburua da enplegua sortzea eta mantentzea ahalbidetzen duten ekimenak sostengatzea eta horretara zuzendutako ekintzak garatzea.

Enpresa berriak abiatzeko zereginen dugun esperientzia oso erabilgarria izango zaizu zure negozioa abiatzeko beharrezkoak diren urratsei heltzerakoan.

Berdin dio zer adin duzun, zere etapatan dagoen zure proiektua... enplegua sortzearekin gaude konprometituta, eta zuri laguntzeko bestelako modu bat proposatzen dugu.

Hasieratik amaierara arte gaude zure ondoan zeure proiektua abiatzeko prozesuan.

- Arreta eta aholkularitza pertsonalizatua.
- Akonpainamendua behar duzun guztian: negozio-plana aztertzea, tramiteak egitea, laguntzek eskatzea ...
- Finantziak baldintza berezitan.

**402** ENPRESA  
SORTUTA  
2015ean


**731** LANPOSTU  
SORTUTA  
2015ean

2015ean SORTUTAKO ENPRESAK	
ARABA	87
BIZKAIA	162
GIPUZKOA	97
NAFARROA	56
<b>TOTAL</b>	<b>402</b>

2015ean SORTUTAKO LANPOSTUAK	
ARABA	170
BIZKAIA	283
GIPUZKOA	180
NAFARROA	98
<b>TOTAL</b>	<b>731</b>

## AUSARTU ZAITEZ EKITEN

5 urrats zeure negozioari ekiteko



# 1 Ideia



Gaztenpresak **20 urtetik gorako esperientzia** du enpresa berriak sortzeko aholkularitzaren alorrean. Laguntza ematen dizugu ikusteko ea zure ideia negozio-aukera ote den, eta laguntzen dizugu, halaber, ideia hobetzen eta zentzu ekonomikoa ematen.

---

# 2 Negozio-plana



Negozio-plana funtsezkoa da ekintzaitzarako. Enpresa bat sortzeak berekin dakartzan inplikazio guztiak ulertzea ahalbidetzen dizu. **Plan egituratu baten forma eman zeure ideari, errealitate bihurtu ahal izateko. Ideia batek funtzionatu ote dezakeen ebaluatzea ahalbidetzen dizu.**


---

# 3 Tramiteak



Enpresa bat sortzeko tramiteak astunak eta gogaikarriak izan ohi dira, eta geuk ondo ezagutzen ditugu. Zure zalantzak argitu ditzakegu, hainbat punturen inguruan: autonomia izateko modua, gizarte segurantzaren ordainketa, laguntzak eta diru-laguntzak...



A man with a beard and short brown hair, wearing a dark blue quilted vest over a grey long-sleeved shirt and light-colored trousers, is smiling and leaning on a wooden wine rack. He is holding a wine bottle in his right hand. The background shows a well-stocked wine cellar with many bottles on shelves.

**"Ardoaren mundua  
nire pasioa da,  
eta horretatik bizi  
naiteke"**

(enpresen sorrera)

Alberto Dito

**VINOTECA POPTHEWINE**  
Denda espezializatua  
**NAFARROA**



**gaztenpresa**  
fundazioa



Urtean ia  
**2.000**  
eskari atenditzen ditugu

eskarien  
**%41**  
hurrengo fasera pasatzen da

Araba %13   Bizkaia %58   Gipuzkoa %20   Nafarroa %9



eskarien

# %46

**BIDERAGARRIA DA**



- Finkapena %8
- Beste programa batzuetara bideratuta %19
- Bideraezinek edo bideragarriak izan arren abiatzen ez direnak %27
- Proiektu bideragarriak %46



**gaztenpresa**  
fundazioa

## 4 Finantziazioa



**Finantziazio-plan bat egiten laguntzen dizugu, zure proiektuaren beharrak baloratzeko eta finantziazio-iturri egokienak eta kostu txikienekoak aukeratzeko.**

Kontuan hartu behar da nola egokitzen zaizkion eskura izango ditugun funts horiek negozioaren bidez diru-sarrerak sortzeko epeari.

Finantziazioa eskura dezakezu baldintza berezitan, eta baita ekintzailtzarako finantziazio-hitzarmen espezifikoak ere: Europako Inbertsio Funtsa, Elkarren Bermerako Sozietateak, ekonomia sozialeko erakundeak...



## PRODUKTU MOTA GAZTENPRESA

MIKROKREDITUAK	25.000eraino 5 urte arte
MAILEGU PERTSONALAK	7 urte arte
HIPOTEKA MAILEGUAK	15 urte arte
KREDITU KONTUA	Urtebete arte
LEASING	

Sortutako 402 enpresetatik,

**%68 (274)**, finantziarioa  
sinatuta zuten 2015eko  
abenduaren 31n, aukeran  
dauden modalitateetako batean,  
**guztira 7.395.000 €tan.**

2015era arte, 120.446.000 €ko  
finantziarioa eman da.



Gaztenpresa Finantziarioa  
Mailegu kopurua

- Mikrokredituak **%70**
- 25.000 €tik gorako finantziarioa **%30**



Gaztenpresa Finantziarioa  
zenbateko finantziatua

- Mikrokredituak **%41**
- 25.000 €tik gorako finantziarioa **%59**



**39**

Batez besteko adina

GIZONAK

EMAKUMEAK

**% 54**

**% 46**

**SITUACIÓN LABORAL**

**% 54**

Lanpostua  
galtzear duten  
langileak

**% 46**

Langabeak

**IKASKETA MAILA**

**% 75**

Unibertsitatez besteko  
ikasketak

**% 25**

Unibertsitate-ikasketak

**FORMA JURÍDICA**

**% 80**

BANAKAKOA OE - SZ

**% 16**

EMS

**% 4**

KOOP.



“Ez zaude inoren  
mende, Zeure  
etorkizunaz  
erabaki dezakezu”

(enpresen sorrera)


Mikel Fernández eta  
Francisco Javier Coyado

**TOLDOS BEROA, S.KOOP.**  
Toldoen fabrikazioa

**ARABA**



**gaztenpresa**  
fundazioa



**“Ekiteak  
ahalbidetzen dit  
nire lanbidean  
eta nire bizitzan  
garatzea”**

(enpresen sorrera)

Ariela Polito (Ekintzailea)

**REINA MARGARITA**

Kosmetika gastronomikoko  
enpresa

**NAFARROA**





# 56.425

## BATEZ BESTEKO INBERTSIOA

2015an, enpresa berriak abiatzera zuzendutako batez besteko inbertsioa 56.425 euro izan dira.

# 26.990

## BATEZ BESTEKO MAILEGUA

2015ean, enpresa proiektua gauzatzeko beharrezkoa izan den batez besteko mailegua 26.990 euro izan dira.

## JARDUERA SEKTOREA

# % 27

## MERKATARITZA

# % 66


## ZERBITZUAK

# % 07

## BESTE BATZUK



**gaztenpresa**  
fundazioa



**“Geurea den  
zerbait sortu  
nahi genuen”**

(enpresen sorrera)


José Luís Navarro,  
Eduardo Martínez de Murguía

**BASQUE MOONSHINERS**  
Patatazko artisau-vodkaren  
ekoizpena

**ARABA**



**gaztenpresa**  
fundazioa



**“Asko lagundu  
digute  
proiektuaren ildo  
estrategikoaren  
definizioan”**

(enpresen finkapena)

Irati González eta  
Maialen Fernández

**BUZZKO**  
Online marketina  
**GIPUZKOA**

# ENPRESEN FINKAPENA

**149**

TAILER  
EGINDA

**1.522**

PARTE-  
HARTZAILE

**500**

KONSULTA  
ATENDITUTA  
PRO-N

**72**

ENPRESA  
FINKATZE  
BIDEAN

# Zure enpresa abiatuta dagoenean ere, zure ondoan jarraituko dugu

---

- Funtsezkoa da enpresen kudeaketan eskarmentua duten pertsonen aholkua izatea. Horretarako, Gaztenpresa Mentoreen talde bat dugu, zure lehenengo urratsetan laguntzeko.
- Beti jarraitu behar da prestakuntza jasotzen, zure negozioaren kudeaketan eguneratuta egoteko. Hori PRO Mintegien eta Gaztenpresa Tailerren bidez egitera gonbidatzen zaitugu.
- Eguneroko kudeaketan sortzen zaizkizun zalantzak argitzeko (zergak, legezko gaiak, laguntzak...), Consulting PRO doako zerbitzua duzu zure esku.
- Baliagarria da zure modukoak diren beste pertsona ekintzaile batzuekin kontaktua izatea: networkinga, esperientziak eta jardunbide egokienak konpartitzea.
- Zure PRO kudeatzailearengana jo dezakezu beti, autonomo eta negozioetan aditua baita, zure negozioerako dauden Pro finantza-zerbitzu onenez orientatzeko.





## “Ez dut bizitza hirugarrenen kontura planteatzen

(enpresen finkapena)

Irene Rodríguez (ekintzailea)

**IDDTEK**

Ingeniaritza Industrialeko Zerbitzuak

**BIZKAIA**



**gaztenpresa**  
fundazioa

# MENTORING PROGRAMA

Akonpainamendua eskaintzen du (boluntariotzaren esparruan) pertsona gazteen negozioak finkatzen laguntzeko.

Ekintzailentzan eta/edo enpresa-kudeaketan eskarmentua duen pertsona bat beste baten ondoan egoten da, kontrastea eskaintzen dio eta hartzen dituen enpresa-erabakiak indartzen ditu, haren **kudeaketarako gaitasunak hobetzeko**.

## Mentoreak lortzen dituen onura batzuk

- Enpresa gazteen sarea finkatzen laguntzea.
- Gizartearen aldeko ekarpena egitea, ezagutza eta esperientzia eskaintzearen bidez.
- Ikaskuntzarako espazio berri bat irabaztea.

## Ekintzaileak lortzen dituen onura batzuk

- Bere negozioari buruzko erabakiak hartzeko prozesua hobetzea.
- Bere sarea hedatzea kontraste zorrotza lortzeko, eskarmentu handiko pertsonekin.
- Ikaskuntzarako espazio berri bat irabaztea.

## Izena eman nahi baduzu

Bidaliezaguzu mail bat: [info@gaztenpresa.org](mailto:info@gaztenpresa.org)

MENTORING	GUZTIRA
Prestatutako mentoreak	41
Prestakutako ekintzaileak	31
Sinatutako harremanak	29







## “Mundua aldatzeko gogo bizia, eta esker ona haren laguntzagatik”


(Mentoring programa)

David Mayoral (ekintzailea)  
Pablo Bringas (mentorea)

**ERLEC ROBOTIC**  
Ingeniaritza eta Domotika  
**ARABA**



**gaztenpresa**  
fundazioa

A man with short dark hair, wearing a dark blue suit jacket over a white button-down shirt, is smiling and looking towards the camera. He is standing in a recording studio, with a mixing console and various pieces of audio equipment visible in the background. The background wall has a textured, stone-like appearance. A large magenta triangle is overlaid on the left side of the image, containing text.

**“Nire betaurrekoen modukoa izan da. Enpresa-proiektu gisa hasi nintzen ikusten”**

---

**(Mentoring programa)**

Jairo Costa Leal (ekintzailea)  
Óscar Muguerza (Mentorea)

**JIRON BLACK**  
Musikaria  
**GIPUZKOA**

\* Tio Pete grabazio estudioa (Urduliz)



**gaztenpresa**  
fundazioa

**“Orain zoriontsu  
naiz, eta gauzak  
ikasten ditut  
egunero”**

**(Mentoring programa)**

Edurne Villanueva (ekintzailea)

Idoia Izaguirre (mentorea)

**CORAZÓN DE LEÓN KIDS**

Haur-moda

**BIZKAIA**





**gaztenpresa**  
fundazioa


---

# KULTURA EKINTZAILEAREN SUSTAPENA

---

Sostengua sen ekintzailea eta proiektu berritzaileak beren ikasleen artean sustatu nahi dituzten Unibertsitateei eta Lanbide Heziketako Ikastetxeei, laguntza ekonomikoaren eta jarduera espezifikoen bitartez.

Sostengua autoenplegua lanerako alternatiba gisa ezagutzen ez duten langabeei.



**gaztenpresa**  
fundazioa



## MONDRAGON UNIBERTSITATEA

### Enpresa-idea berrien kategoria

Kategoria honetan 92 ikaslek parte hartu dute, guztira, 28 taldetan banatuta.

#### 1 saria: Clap shoes

Proiektu hau oinetako tradizionalen diseinuan oinarritzat da, baina ikuspegi berritzaile eta jasangarri batetik, "Slow Fashion" filosofia oinarritzat hartuta.

Sari honen irabazleak LEINNEko ikasleak dira.

Sariaren zenbatekoa: 1.000 euro.

#### 2. saria: Blade Monitoring System Proiektua

BMS hegal eolikoaren egoera hari gabeko sentsoreen bidez monitorizatzeko sistema bat da, Sentsore horiek irrati-frekuentziako seinaleen bidez komunikatzen dira, hegalaren deformazio-balioak transmititzeko. Azpimarratu behar da sentsoreak pasiboak eta bateriarik gabekoak direla, eta, hortaz, ez dutela inolako mantenu behar. Horri esker, hegalen mantenu prediktiboa egin daiteke eta diru zenbateko mardulak aurreztu daitezke.

Sari honen irabazleak Sistema Txertatuen Masterreko ikasleak dira).

Sariaren zenbatekoa: 500 euro

#### 3. saria: SignVoz

SignVozek proposatzen du aplikazio bat egitea SMARTPHONE eta TABLETentzat, kamera baten bidez zeinu-hizkuntza erabiltzen duten pertsonak grabatu ditzakeena eta gero zeinuak ahozko hizkuntzara itzul ditzakeena. Sistemaren lehenengo prototipo bat egiteko, zeinu-hizkuntzaren itzulpena 112 telefono-zenbakiarekin konektatzea eskatzen duten larrialdietara mugatuko da.

Proiektuaren egileak Sistema Txertatuen Masterreko ikasleak dira.

Sariaren zenbatekoa: 500 euro.





## NAFARROAKO UNIBERTSITATEA - TECNUN

### LEHIAKETA: ASMAMENA ETA DISEINUA

Lehiaketa honen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Sormena eta ideien garapena akuilatzea.
- Taldekako lana eta ideiak sortzeko tekniken erabilera sustatzea.
- Produktuen hobekuntzara zuzendutako sen kritikoa sustatzea.
- Tresna informatikoen erabilera sustatzea.

### TECNUN GAZTENPRESA SARIA

Parte-hartzaileak, guztira : 270 talde

**Parte hartzen duten pertsonak: 790, batxilergoko 1. eta 2. mailakoak.**

**Ikastetxe kopurua: 62**

### Inplikaturako irakasleen arloak:

Mundu garaikiderako zientziak, Ordenagailuz lagundutako diseinua, Informatika, Gorputz-heziketa, Teknologia, Marrazketa Tekniko eta Artistikoa, Fisika, Matematika eta Ekonomia.

### Proiektua:

Atzerako ispilua garbitzeko mekanismoa eta kable barneragarria duten aurikularrak.

Ikastetxea: Ayalde, Bizkaia.


Sariak banatzeko ekitaldi ofiziala 2015eko apirilaren 17an izan zen, Tecnunen Gradu Aretoan, Donostiako campusean.

# KOMUNIKAZIOA ETA SARE SOZIALAK

Gaztenpresan online kanal batzuk ditugu, helburu hirukoitzarekin: informazio baliagarria eskaintzea ekintzaile izan nahi dutenei, jadanik ekintzaile direnak bistaratzea, eta plataforma berriak irekitzea zalantzak dituzten pertsona guztiei.

Webgunean argitaratzen diren edukiak honako hauek dira:

- Gaikako artikuluak
- Pertsona ekintzaileentzako baliabideak
- Diru-laguntzak
- Albistek
- Pertsona ekintzaileen aurkezpena
- Negozioen argazkiak Pinterestean




# 1 Ekintzaitza plana

Ausartu zaitetz proiektu bat hasten. Austartu zaitetz ekiten!

Gaztenpresa hasieratik beretik dago zure ondoan, arreta pertsonalizatua, laguntzak, finantziazioa... eskainiz.

Enpresa-idea bat baldin baduzu, Gaztenpresatik zurekin kontaktatuko dugu zure negozioa sortzen laguntzeko.

**Arreta pertsonalizatua hasieratik amaierara.**




Kanpainak microsite bat eta bideo batzuk ditu  
**emprendizajelaboralkutxa.com**

## 2 “El gran salto”

Urriaren 31tik abenduare 23ra arte ekintzailetzari buruzko lehiaketa batekin kolaboratu dugu Eitb-n, docureality formatuan. Hona hemen azpimarratu beharreko datu garrantzitsu batzuk:



El Gran Salto 20.000 ikusle helduk ikusi dute, batez beste, eta 2,6ko kuota izan du, ETB2n izandako bederatzizko edizioetan.



emititu dira

**9 18**

spot kareta

2015eko urriaren 31tik abenduaren 26ra

**Helduen % 16,7k ikusi ditu LABORAL kutxaren spotak. % 8,3k bi baino gehiago**

**CASTINGA:**

Irailaren 24an casting bat egin zen EITBren egoitzan, programaren parte-hartzaileak aukeratzeko. Bertara, 50 proiektu inguru aurkeztu ziren.

**PRENTSAURREKOA:**

Urriaren 29an, programa prentsaurreko batean aurkeztu zen, EITBren egoitzan, parte-hartzaileen, coacheen eta Adela Úcar aurkezlearen presentziarekin

**SUSTAPENA:**

Ostiralero, Adela Úcarrek, Sin Ir Más Lejos programaren kolaboratzaileak, El Gran Saltoaren promozioa egiten zuen Klaudio Landak aurkezten duen programan.

**SUSTAPENA. Prentsa-oharrak:**

Astero, EITBren erredakzioak prentsa-oharrak bidaltzen zituen, hurrengo programaren edukiei, gonbidatu bereziei eta horrelakoei buruzkoak.

**El Gran Salto EITB.eus-en**

**14.779 ERABILTZAILE HUTS  
17.766 BISITA**

**38.728 ORRIALDE IKUSITA  
2,18 ORRIALDE/ BISITA**



**gaztenpresa**  
fundazioa

---

# GURE PARTE- HARTZEA DUTEN SAREAK

---

- **YOUTH BUSINESS INTERNATIONAL (YBI)**

Irabazi-asmorik gabeko erakunde eta ekimen independenteak biltzen dituen sare global bat da, gazteei laguntza ematen diena euren negozio propioak sortzeko eta finkatzeko prozesuan, enplegua sortzea xedetzat hartuta. 34 herrialdetan du presentzia.

- **YOUTH BUSINESS SPAIN (YBS)**

YBlk, gazteen langabeziak estatuan duen maila handiagatik kezkatuta, laguntza eskatu dio Accentureri pertsona ekintzaileekin lan egiten duten erreferentziako erakundeak identifikatzeko, eta Fundazio berri bat eratzera gonbidatu gaitu, beste bi erakunderekin batera. Fundazio horri Youth Business Spain deitu diogu. Inpaktu kolektiboko ekimen bat da, helburutzat duena autoenplegua gazteen artean sustatzea. Horri lotuta, beren negozio propioak sortzeko, finkatzeko eta garatzeko behar dituzten baliabideak eskuratzen laguntzen die, haien garpen pertsonal eta profesionala sustatuz eta enpleguaren sorrera haien komunitateetan bultzatuz.

**Elkartzeko helburu nagusietako bat da instituzio desberdinen konpromisoak arazo sozial konplexu bat –langabezia- konpontzeari dakarkion inpaktu kolektiboa.**

- **EUROPEAN MICROFINANCES NETWORK (EMN)**

Europako Mirkofinantzen Sareak (EMN) erakutsi du funtsezko urratsa dela mirkofinantzak Europar Batasunean sustatzeko bidean, eta baita gizarte- eta finantza-bazterketaren aurka borrokatzen laguntzeko ere. Hala, EMNk modu aktiboan jardun du mikroenpresei eta autoenpleguari laguntzeko, bere kideen bitartez, EB mailako ekimenean; halaber, garrantzitsua da mirkofinantzen merkatu sendo bat sustatzen duten lege- eta arau-esparru europarrak eraikitzeko beharraz kontzientziatzeko egin duen lana.

**EMNn parte hartzen dugun bi Euskal erakunde bakarrok Seed Capital eta Gaztenpresa gara.**

## Youth Business International



## Youth Business Spain



## European Microfinances Network (EMN)



# Elkarrekin urrakorrenen enpleguaren alde

Accenture Fundazioak sustatutako ekimena

Ahalegin kolektibo batean biltzen ditugu gizarte-erakundeak, enpresak, enpresa-fundazioak eta erakunde publikoak, kolektibo urrakorren enplegu eta autoenplegu aukerak hobetzen dituzten irtenbideak bultzatzeko.

1. Beharrak modu berdinean ulertzen ditugu.
2. Irtenbiderik onenak identifikatzen ditugu.
3. Proiektu Kolektiboak garatzen ditugu.



**124**  
erakunde





**gaztenpresa**  
fundazioa

---

# EGOERAREN BALANTZEA 2015

---

<b>AKTIBOA</b>	<b>2015</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>	<b>2015</b>
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>23.007</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>169.702</b>
		<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>576.444</b>
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>836.047</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>112.908</b>
<b>TOTAL ACTIVO</b>	<b>859.054</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>859.054</b>

\* Eurotan adierazita.

# Galera eta irabazien kontua 2015

(Eurotan adierazita)

A) EKITALDIAREN SOBERAKINA	Oharrak	2015
<b>OPERAZIO JARRAITUAK</b>		
1. Jarduera propioaren sarrerak		822.960
a) Promozio, babesle eta laguntzaileen bidez eskuratutako sarrerak	14 a	592.960
b) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	14 b	230.000
2. Salmentaren eta merkataritza-jardueraren beste sarrera batzuk	14 c	24.577
2. Gastuak diru-laguntzengatik eta beste batzuegatik	14 d	(396.760)
a) Diruzko laguntzak		(4.000)
a) Diruz besteko laguntzak		(392.760)
3. Jardueraren beste sarrera batzuk		3.567
4. Jardueraren beste gastu batzuk	14 f	(436.697)
5. Ibilgetuaren amortizazioa	5	(3.777)
6. Hornigaien gehiegizko kantitatea	11	-
<b>JARDUERAREN SOBERAKINA</b>		
7. Finantza-sarrerak		6
8. Finantza-gastuak		56
9. Truke-diferentziak		-
<b>FINANTZA-OPERAZIOEN SOBERAKINA</b>		
SOBERAKINA, ZERGEN AURRETIK		13.820
9. Mozkinen gaineko zerga		-
ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIAREN SOBERAKINEAN AITORTUA		13.820
ERRAKUNTZEK ERAGINDAKO DOIKUNTZAK	2 e	-
<b>OSOKO EMAITZA, ONDARE GARBIAK EKITALDIAN IZANDAKO ALDAKETA</b>		<b>13.820</b>

Honi atxikitako txostenean deskribatutako 1.-19. oharrak Galera eta Irabazien Kontuaren osagaia da, 2015eko abenduaren 31n

# Nondik hasi

Ausartu zaitetz zeure negozioa abian jartzen

---

## GAZTENPRESA FUNDAZIOA

[www.gaztenpresa.org](http://www.gaztenpresa.org)



900 101 143



[info@gaztenpresa.org](mailto:info@gaztenpresa.org)

## LABORAL kuxaren BULEGO SAREA

[www.laboralkutxa.com/es/buscar-oficinas](http://www.laboralkutxa.com/es/buscar-oficinas)



901 333 444



[contactacon@laboralkutxa.com](mailto:contactacon@laboralkutxa.com)

---

## CONSULTING PRO

[consultingpro.laboralkutxa.com](http://consultingpro.laboralkutxa.com)



900 100 240



Consulta Online

## BULTZ-LAN CONSULTING

[bultz-lan.com](http://bultz-lan.com)



[info@bultz-lan.com](mailto:info@bultz-lan.com)



Bizkaia 94 410 21 44  
Gipuzkoa 943 47 20 96  
Araba 945 12 00 08

# Eskerrik asko

Beren lankidetzagatik, ekintzaileei:

## BIZKAIA

---

### SINGULAR

(Javier Ojeda)

[www.singularideas.es](http://www.singularideas.es)

### AUTOCINE GETXO

(Fernando De Soignie y  
Javier Castaños)

[autocinegetxo.com](http://autocinegetxo.com)

### CORAZÓN DE LEÓN KIDS

(Edurne Villanueva)

[www.corazondeleonkids.com](http://www.corazondeleonkids.com)

### IDDTEK

(Irene Rodríguez)

[www.iddtek.com](http://www.iddtek.com)

## GIPUZKOA

---

### OKAKO HOTEL

(Koro Ruiz)

[www.okakohotel.com](http://www.okakohotel.com)

### MANUELA VA DE FIESTA

(Enma Francés)

[www.manuelavadefiesta.com](http://www.manuelavadefiesta.com)

### TALLERES UBATZ

(Joseba Ubiria y Aratz Mayo)

### BUZZKO

(Iratí González y  
Maialen Fernández )

[buzzko.com](http://buzzko.com)

### JAIRON BLACK

(Jairo Costa Leal)

# Eskerrik asko

beren lankidetzagatik, ekintzaileei:

## ALAVA

---

### TOLDOS BEROA

(Mikel Fernández y  
Francisco Javier Coyado)

[www.toldosberoa.com](http://www.toldosberoa.com)

### BASQUE MOONSHINERS

(José Luís Navarro,  
Eduardo Martínez de Murguía)

[basquemoonshiners.es](http://basquemoonshiners.es)

### ERLEC ROBOTIC

(David Mayoral)

[www.erlerobot.com](http://www.erlerobot.com)

## NAVARRA

---

### LOREKI

(Loli Caballero)

[www.loreki.com](http://www.loreki.com)

### REINA MARGARITA

(Ariela Polito)

### VINOTECA POPTHEWINE

(Alberto Dito)

[popthewine.com](http://popthewine.com)



[www.gaztenpresa.org](http://www.gaztenpresa.org)